

# DIRU SARRERAK

Hasiera batean, gure eguzkitakoak ez dira oso merkeak izango dituzten materialak eta muntaiaren prozesua konplexua delako, eta ondorioz, ekoizteak ere gastu handiak suposatzen dituelako. Beraz, enpresa txiki bat izanik eta dena bertan ekoitzia dela kontuan hartuta, prezioa igo egingo da. Aldiz, gure produktuaren salmenta arrakastatsua bada, denborarekin produktuaren prezioa jaistea da gure asmoa.

Produktuaren aurreikuspenari dagokionez, ez da maila ekonomiko baxua duten pertsonen zuzendutako produktu bat, baina etorkizunean maila ekonomiko oroko biztanleriari zuzenduta egongo da, prezio finko batetik, prezio dinamiko batera igaroz.

Gure produktua eguzkitako bat denez, udaran salmenta handiagoak izango ditugu eta orduan lortuko ditugu gure diru sarrerarik handienak, eta batez ere asteburuetan, jende gehiago joaten delako hondartzara. Horretarako, gure dendak kostaldean kokatuko dira, hondartzatik gertu egonik jendeak hondartzara bidean gure denda ikus dezan.

Salmentei dagokienez, hasiera batean arrakasta handirik izango ez dugula estimatzen dugu, produktu berritzaile eta ondorioz garestia izango delako. Orduan, hilabeteko 30 eguzkitako salduko ditugula espero dugu nahiz eta biltegian gehiago izango ditugun erosle gehiago gerturatzen badira ere.

Bestalde, hainbat kantinari gure eguzkitako pare bat oparituko dizkiogu, horrela, beraien bezeroak gure produktuaren abantailez ohartuko dira, eta ondorioz, gure produktuaren salmentak arrakasta handiagoa edukiko du.

